



Arartekoaren 2014ko otsailaren 20ko ebazpena. Horren bidez, Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Sailari gomendatzen zaio Ertzaintzaren jarduketa bati buruzko kexari erantzutea eta hari erakunde honen gomendioekin bat datorren tratamendua ematea.

Aurrekariak.

1. (...)k Arartekoaren esku-hartzea eskatu zuen, Eusko Jaurlaritzako aurreko Herrizaingo Sailak sailburuari bidalitako idazki bati erantzuteko; idazki horretan Ertzaintzako bi agentek emandako tratuaz kexatzen zen, gizarte aditua den aldetik manifestaldi bat ikusten zuen bitartean, baita agenteen jarduketaren beste alde batzuez ere.

Hona hemen haren kexaren arrazoiak, zehatz-mehatz: a) agenteetako batek lekutik alde egiteko agintzea oihuka eta bultzaka; b) agentea biziki haserretzea, emandako tratuagatik kexatu zenean eta identifikazio profesionaleko zenbakia emateko eskatu zuenean; c) identifikazio profesionaleko zenbakia emateari uko egitea; d) bigarren agente batek bere burua eta lehenengo agentea ustez faltsua zen identifikazio profesionaleko zenbakiaz identifikatzea; e) lehenengo agenteak legez kontrako zehapena egoztea, agenteei ustez begirunea galdu izanagatik; f) egozpenaren berri ez ematea, adierazitakoaren arabera, zitazio judiziala jasotakoan izan baitzuen horren berri; eta g) gertaeren ondorioz bideratutako atestatuak gertatutakoa benetan ez adieraztea.

Agiri horretan interesdunak adierazten zuen XXko Probintzia Auzitegiak absolbitu zuela atestatuan salatutako gertaerak lehen auzialdian ebazteaz arduratu zen Yko x. zenbakiko Instrukzioko Epaitegiak zigorra ezartzeko kontuan hartutako hutsegitetik. Gainera, agenteen jarduketan desegokitzat jotzen zituen aldeengatik barkamena eskatzeko eta bigarren agentearen identifikazio profesionaleko zenbakia emateko eskatzen zuen.

Idazki horretan kexagileak lehenengo agentearen identifikazio profesionaleko zenbakiaren berri eman zuen, adierazitakoaren arabera, horren berri izan zuela beranduago.

2. Kexa izapideak egiteko onartu eta aztertu ondoren, aurreko Herrizaingo Saila ordeztu duen Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Sailera jo genuen, horri buruzko informazioa emateko.

Lehenengo eskaera horri erantzuteko sail horrek eman zigun informazioak ez zion heltzen kexagileak Herrizaingo sailburuari bidalitako kexari ez



erantzutearen kontuari, nahiz eta, guk adierazi bezala, erakunde honetan kexa aurkezteko xede nagusia horixe zen.

Aipatutako informazioak ez zion heltzen kexak aipatzen zituen bi agenteen jarduketari buruz interesdunak idazkian adierazitakoari ere. Kontu horiei dagokienez, Segurtasun Sailak bakarrik adierazi zuen kexagileari agenteei begirunea galtzeagatiko ustezko hutsegitea egotzi zitzaiola eta gertaera horiengatik atestaturik bideratu zela. Horretan agenteek adierazi zuten kexagileak horiek eta manifestatzaileak iraintzen zituen beste pertsona bati arrazoa eman, eta hori zirikatzen zuela. Gainera, sailak uste zuen agenteen jarduketa zuzena izan zela, atestaturik bertan eta, horren ondorioz, interesduna zigortuta Yko x. zenbakiko Instrukzioko Epaitegiak emandako epaian oinarrituta (419/11 zenbakiko falta epaiketa).

Erakunde honen ustez, aipatutako azalpenak ez ziren nahikoak, kexa argitzeko eta kexagileak poliziaren jarduketaz sortutako zalantzak desagerrarazteko. Izan ere, egozpenaren eta atestatuaren berri baino ez zuten ematen —horiexek ziren, hain zuzen ere, interesdunak idazkian aipatutako agenteen jarduketarekiko desadostasunaren aldeetako bi—, eta ez zuten ezer adierazten kexagileak adierazitako gainerako kontuei buruz (lekutik alde egiteko agintzea modu desegokian, agenteetako bat biziki haserretzea emandako tratuagatik kexatu zenean eta identifikazio profesionaleko zenbakia emateko eskatu zuenean, agenteek beren identifikazio profesionaleko zenbakiak ez ematea, agenteetako batek gezurrezko zenbakia ematea eta egozpenaren berri ez ematea).

Gure ustez, azalpen horiek ez zeukaten inolako baliorik kexari eman beharreko tratamenduaren ikuspuntutik, poliziaren jarduketaren zuzentasuna oinarritzen baitzuten atestaturik bertan —nahiz eta interesdunak zalantzan jartzen zuen hori bideratzea eragin zuten gertaeren egiazkotasunari buruzko edukia, besteak beste— eta XXko Probintzia Auzitegiak ukatutako kondena epai batean (XXko Probintzia Auzitegiaren 2012ko martxoaren ddo epaia; hutsegiteen apelazioko erroiluaren zk.: 39/2012). Azken epai hori zen, hain zuzen, kexagileak idazkian Herrizaingo sailburuari bidalitako kexa oinarritzen zuena, horri erantzuteko eskatzen zuela.

Gure ustez, atestaturik adierazi ziren eta kexan zalantzan jartzen ziren gertaerak, Segurtasun Sailak poliziaren jarduketaren zuzentasuna justifikatzeko oinarri hartzen zituenak, sail horrek behar bezala aztertu eta argitu behar zituenak ziren, zalantzan jarritako gainerako aldeekin batera. Hori dela eta, ezin zuten balio jarduera zuzena zenik justifikatzeko.





Segurtasun Sailari aipatutako gogoetak helarazi genizkion, eta interesdunak aurreko Herrizaingo Saileko titularrari bidalitako idazkiari erantzuteko lege betebeharra gogorarazi genion (azaroaren 26ko 30/1992 Legeko 42. artikulua, Ertzaintzaren jarduera-eremuan, batetik, Ekinbide–Polizia Zerbitzua Hobetzeko Ekimenetarako Bulegoa sortu, eta, bestetik, bulego horren antolamendua eta funtzionamendua arautzen dituen azaroaren 14ko 227/2000 Dekretuko 7. eta 8. artikuluei lotuta).

Halaber, gogorarazi genion erakunde honek kexen ikerketari, atestatuetao edukiaren kontrolari (horiek eragin dituzten gertaerei dagokienez) eta bilera eskubideari buruz duen jarrera, Arartekoak urriaren 28an *Poliziaren jarduera eta praktiketako berme sistemari buruz* emandako 7/2011 Gomendio Orokorrean (II.1.1, II.2.3 eta IV. atalak) gaur egun adierazten dena.

Era berean, *Bilboko San Frantzisko zonan atzerritarrekiko burututako jarduera polizialei buruz arartekoak izandako esku-hartzeari* buruzko txostenean (1998ko urteko txostena) agenteek haiekin harremanetan jartzen diren pertsoneri eman beharreko tratuari, informazioa eskatzen zaienean edo pertsona batzuek haien jarrera zalantzan jartzen dutenean izan behar duten jarrerari, identifikazio profesionaleko zenbakia eman beharri eta eremu horretan gehiegikeriak saihesteko eta kontrolatzeko mekanismoei buruz egin genituen gomendioak [berariazko 8. gomendia, b) eta e) idatz-zatiak] gogorarazi genizkion.

Segurtasun Sailari adierazi genion aipatutako gomendioak ezinbesteko erreferentziak zirela kexagileak idazkian egin zuen eta erantzuteko eskatzen zuen kexaren tratamenduan. Halaber, adierazi genion, gure iritziz, interesduna absolbitzen zuen XXko Probintzia Auzitegiaren epaia ere ezinbesteko erreferentzia zela. Izan ere, kexagileak emandako agiri horren kopiaren arabera, horretan zalantza batzuk agertzen ziren poliziaren jarduketaren zuzentasunari buruz, agenteek interesdunari leku horretatik alde egiteko emandako aginduaren legezkotasunari dagokionez.

Horretan guztian oinarrituta, berriro ere sail horretara jo genuen, adierazitako gabeziak zituen informazioa emateko eta guk adierazi bezala jarduteko prest zegoen jakinarazteko. Gainera, agenteek kexagileari egotzitako ustezko zigor arloko arau-haustearen “egozpen eginbide”rik eman zioten jakinarazteko eskatu genion.

3. Bigarren eskaera horri erantzuteko, Segurtasun Sailak lehenengo eskaerari erantzuteko emandako txosten bera bidali zigun, eta honako hau gehitu zuen:



“Izatekotan, jarduera berriro ikuskatuko dugu, eta horri buruz iritzi berriren bat egongo balitz, jakitea eragingo diogu.”

Ondoren, beste informazio bat bidali ziguten, eta horretan berriro adierazten zuen agenteen jarduketa zuzena zela, kexagilea absolbitu zuen XXko Probintzia Auzitegiaren epaiak jarduketa ez-zuzentzat jotzen ez zuela eta *“mintieron o falsearon el atestado”*. adierazten ez zuela oinarri hartuta.

Informazio horretan sailak agenteek kexagileari identifikazio profesionaleko zenbakia emateari buruzko ustezko ukoa eta agenteetako batek bere burua eta lankidea ustez gezurrezko identifikazio zenbakiaz identifikatzea aipatzen zituen, *los agentes en su declaración en ningún momento afirman que se negaron a identificarse*”. adierazita. Halaber, agenteak kexagileak adierazi bezala jardun zuela egiaztatzerik ez zegoela eta uste zuela zentzugabekoa zela horrek gezurrezko identifikazio zenbakia ematea adierazi zuen, agenteek jakin badakitelako beren identifikazio zenbakia epaitegira bidaltzen den atestatuan agertzen dela.

Era berean, Segurtasun Sailak bere informazioan kexa eragin zuten poliziaren jarduketaren aldean ikerketa aipatu zuen. Horri dagokionez, aurrekoaz gain, adierazi zuen ezin zela zigor arloan egindako epaitzea osatu, poliziaren jarduketa errespetatu beharreko arau, protokolo eta jarraibideetarako egokitzapenaren ikuspuntutik zehatz-mehatz baloratuta, urriaren 28ko 7/2011 Gomendio Orokorrean (II.1.1 idatz-zatia) oinarrituta adierazi genuen bezala. Izan ere, *“ la conducta de los actores es la que se ha valorado en el juicio, donde por un lado se encontraba el imputado al que se le hacía responsable de una conducta que, en este caso, solo era constatable por la declaración de los agentes, donde lo visto y oído por ellos sólo era objetivable en base a sus declaraciones teniendo como consecuencia que según en qué instancia judicial han sido analizados los hechos, estos han tenido o no suficientes elementos probatorios”*. Eta honako hau ere adierazten zuen: *“si hubiera habido algún dato que pudiera dar idea de la falsedad que manifiesta el reclamante respecto a lo que manifiestan los agentes, el instructor y secretario de las diligencias lo debieran haber recogido en el atestado, y ello hubiera dado por finalizadas las diligencias policiales y se hubieran incoado otras contra los propios agentes”*.

Segurtasun Sailak aipatutako kontuei lotutako informazioa baino ez zigun eman, hau da, ez zuen ezer adierazi galdetutako gainerako kontuei buruz (interesdunaren idazkiari erantzun ez izana, kexa argitzeko egindako barneko ikerketa, bilera eskubideari lotutako aldeak, agenteetako batek kexagileari emandako tratua kexatu zenean eta identifikazio profesionaleko zenbakia emateko eskatu zuenean, agenteek zenbaki profesionaleko zenbakia emateari



uko egitea, horietako batek zenbaki horri buruz eman zuen eta gezurrezkoa omen zen informazioa, eta agenteek interesdunari egozpenaren berri ematea eta egozpen eginbidea ematea).

4. Informazioaren urritasunak kontua hirugarren aldiz Segurtasun Sailari agertzera eramán gintuen, eta, eskatutako informazioa emateko hainbat kudeaketa egin ondoren, azkenean beste jakinarazpen bat bidali digu, interesdunaren idazkiari erantzun ez izana honela justifikatzen duena:

"Idazki horrek, halaber, EKIN/2012/0138 espedientea eragin zuen, baina Ekinbiden (polizia-zerbitzuak hobetzeko ekimen bulegoa) ukatu egin zen bulego hori sortu eta haren antolakuntza eta funtzionamendua arautzen dituen azaroaren 14ko 227/2000 Dekretuan ezarritako onarpen-baldintza batzuk betetzen ez zituelako. Zehazki, dekretu horren 7. artikulua arabera, Ekinbidek baloratzen du:

- a. *Ez zuen helbiderik jartzen.*
- b. *Fede txarra edo modu nabarmenean oinarririk eza antzematen diren ekimenak. Horren harira, interesdunak sailburuari eta "Gezurria" ezizenaz aipatzen duen gente bati barkamena eskatzeko exijitu die eta; halaber, agente hori nor den azaltzeko. Idazkian erakundearekiko begirune-falta nabaria dago, baita egintzen inguruko rrazoibiderik eza ere.*
- c. *Ekimena aurkeztu den data baino gutxienez urtebete lehenago burututako polizia-jarduketei buruzko ekimenak. Eman duen data bakarra 13/05 da, urtea adierazi gabe, eta Ekinbiden 2012/05/14ko sarrera du."*

Interesdunaren idazkiarekin batera emandako informazioa, erakunde honek aurretik ezagutzen zuena, kexagileak agiri hori eman baitzigun kexarekin batera.

Informazio berriak galdetutako gainerako kontuei erantzun gabe jarraitzen du, honako hau oinarri hartuta: *"Azaldutako gainerako kontuei dagokienez, adierazi behar dugu Segurtasun Sail honek, dagokion epaian ebatzitako prozedura judizialaren edukia ikusirik eta, epaian agente esku-hartzaileen jardunbide desegokiei buruzko aipamenik ez dagoenez, 2013ko ekainaren 25eko horren gaineko txostenean agertutakoa berresten dugula".* Txostena Segurtasun Sailak bigarren informazio eskaerari erantzuteko bidalitakoa da. Aurretik adierazi bezala, idazkiko edukia urritzat jo genuen, eta horixe bera adierazi genion.





Gogoetak

1. Ertzaintzaren jarduera-eremuan, batetik, Ekinbide – Polizia Zerbitzua Hobetzeko Ekimenetarako Bulegoa sortu, eta, bestetik, bulego horren antolamendua eta funtzionamendua arautzen dituen azaroaren 14ko 227/2000 Dekretuak honako hauek jotzen ditu ekimentzat: *“Ekinbide–Polizia Zerbitzua Hobetzeko Ekimenetarako Bulegoari aurkeztutako ohar, iruzkin, akats- edo irregulartasun-egiaztapen eta iradokizun oro, beti ere Ertzaintzaren polizia zerbitzuen funtzionamendu edo jarduerari buruzkoak badira”*.

Dekretuak ekimenak izapideak egiteko onartzea arautzen du, eta honako hau xedatu du: *“Ekinbide–Polizia Zerbitzua Hobetzeko Ekimenetarako Bulegoan ekimena jaso eta erregistratu ostean, bulego horretako arduradunak ebatziko du: ekimena izapideak egiteko onartzen denentz, bost eguneko epearen barruan beti ere; eta ebatzi hori, bestalde, ekimena sustatu duen pertsonari jakinarazi beharko zaio”* (7.1 art.). Izapideak ez egiteko arrazoien artean, honako hauek daude: *“Asmo gaiztoz egindakoak edo ia batere funtsik ez dutenak”*, baita *“Ekimena aurkeztu baino urte bat lehenagoko polizia egintzei buruzko ekimenak”* [7.2 artikuluko b) eta e) idatz-zatiak], Segurtasun Sailak horiek aipatu dituela.

“Izapideak egiteko onartu ez izana, pertsona interesatuari jakinarazi beharko zaio, arrazoitutako idazki baten bitartez hain zuzen ere” (7.3 art.).

Horrez gain, Dekretuak eskatzen du ekimenean hori aurkeztu duenaren jakinarazpenak egiteko helbidea adierazteko, beste datu batzuen artean (5.2 art.).

Halaber, honako hau xedatu du: *“Izapideak egiteko onartzen ez diren kasuei dagokienez, Ekinbide–Polizia Zerbitzua Hobetzeko Ekimenetarako Bulegoak, beti ere, kontuan izango du herritarrek azaldutako informazioa, hain zuzen ere polizia zerbitzuak hobeto funtzionatzeko datu interesgarriak lortzearen”* (7.4 art.).

2. Aurrekarietan adierazi bezala, Segurtasun Sailak adierazi digu kexagileak Herrizaingo sailburuari bidalitako idazkia aipatutako dekretuan arautzen diren ekimenetako baten moduan hartu zela eta ez zela izapideak egiteko onartu, bertan asmo gaiztoa zegoela edo ia batere funtsik ez zuela, urtebete baino arinago gertatutako poliziaren jarduketa aipatzen zuela eta helbidea adierazten ez zuela ikusita.



Jada adierazi denez, sailak asmo gaiztoa edo funtsik ez izatea oinarritu du honako arrazoi hauetan: a) interesdunak poliziaren jarduketaren ondorioz barkamena eskatzeko eskatzea sailburuari eta agenteetako bati; b) agente hori "gezurtia" zela esatea eta haren identifikazio profesionaleko zenbakia emateko eskatzea; eta c) sailak kexan erakundearekiko ageriko begirunerik eza eta gertaerak argumentatzeko urritasuna antzematea.

Halaber, aurrekarietan nabarmendu dugu Segurtasun Sailak kexa epez kanpo zegoela justifikatu duela honela: Ekinbide-Polizia Zerbitzua Hobetzeko Ekimenetarako Bulegoan 2012ko maiatzaren 14an erregistratu zen, baina horrek aipatzen zuen poliziaren jarduketa aurreko urteko (2011) maiatzaren 13an gauzatu zen.

Nabarmendu behar dugu orain arte Segurtasun Sailak ez digula azalpen hori eskaini, ezta besterik ere, kexagilearen idazkiari erantzun ez izana justifikatzeko, eta lehenengo aldiz izapideak egiteko onartzeko ezintasunaren eta hartutako erabakia jakinaraztearen balizko arazoen berri eman digula, egindako lehenengo informazio eskaeratik urtebete baino denbora luzeagoa igaro ondoren, nahiz eta aldi horretan, azalpenik ematen ez zuela ikusita, hainbat alditan egin diogun eskaera hori, aipatutako idazkiari erantzuteko lege betebeharra zuela gogorarazi diogun eta erantzuteko eskatu diogun.

Justifikatu ez den jokabide horrek erakunde hau harritzen du, are gehiago kontuan hartzen bada interesdunak Arartekora jo zuela, idazkiari erantzuteko eskatzeko.

Horrez gain, ez gaude ados Segurtasun Sailak kexagilearen kexa idazkiaz egin duen kalifikazioarekin.

Sail horrek idazkiaren tonua egokia ez zela eta bertan aipatutako esaldietako batzuk Ertzaintzak eta sailak berak merezi duten errespeturako egokiak ez zirela baloratu duen kontuan hartu gabe, uste dugu inguruabar horiek ez daukatela zerikusirik asmo gaiztoarekin eta, horregatik, ezin izango luketela mota horretako iritzirik ekarri.

Gure ustez, ezin da asmo gaiztotzat jo interesdunak desegokitzat jotzen zuen jarduketagatik barkamena eskatzeko eta ezagutzeko eskubidea duen informazioa (kexak ukitutako agenteetako baten identifikazio profesionaleko zenbakia, hain zuzen) emateko egindako eskaera, nahiz eta eskaera horretan "exijitu" hitz zorrotza erabili.





Halaber, gure ustez, ezin da esan kexak ez duela batere funtsik edo izapideak egiteko onartzeko behar beste argudio ez duela. Poliziaren ustezko jarduketa desegokiei buruzko kexen ikerketari eta kexagileak adierazitako gainerako kontuei (jarraian zehaztuko dira) dagokienez erakunde honek agertu duen jarrera kontuan hartuta, uste dugu kexak behar bezala ikertu eta argitzeko beharrezko funtsa zuela. Izan ere, kexan zehatz-mehatz azaltzen ziren ustez desegokiak ziren gertaera batzuk, desadostasuna eragindako poliziaren jarduketaren aldeak ondo zehazten ziren, eta interesduna agenteetako baten egozpenetik absolbitzen zuen XXko Probintzia Auzitegiaren epaia eransten zuen. Gainera, aurrekarietan adierazi eta jarraian garatuko dugun bezala, epaiak zalantzan jartzen zuen agenteek kexagileari alde egiteko emandako aginduaren legezkoatasuna; gogora dezagun kontu hori kexaren arrazoietako bat zela eta gertaeren ondoko bilakaeraren jatorrian zegoela. Uste dugu ezin dela zehaztaperik handiagorik edo argudio gehiago eskatu, kexa bat izapideak egiteko onartzeko.

Laburbilduta, uste dugu kexa ez zegoela epez kanpo. Esku artean ditugun datuen arabera, interesdunak kexa aurkeztu zuen 2012ko maiatzaren 7an Herri Administrazio eta Justizia Sailean (Gasteizko Ramiro de Maeztu kaleko erregistro osagarriko —Zuzenean— sarrera-erregistroko zk.: xxx). Kexaren xedea 2011ko maiatzaren 13an egondako poliziaren jarduketa bat izan zen; beraz, jarduketa amaitu zenetik urtebeteko epea igaro baino lehen aurkeztu zuen. Ekinbide-Polizia Zerbitzua Hobetzeko Ekimenetarako Bulegoak kexa idazkia 2012ko maiatzaren 14ra arte ez erregistratzeak ez dauka zerikusirik kexagilearekin, eta ezin du justifikatu idazki hori ez onartzea, Administrazioan sartu den eta kontuan hartu behar den data aipatutako erregistrokoa izan behar baita. Idazkia Ekinbiden erregistratu zen data kontuan har liteke bulego horrek bete behar dituen epeak zenbatzeko ondorioetarako bakarrik (azaroaren 26ko 30/1992 Legeko 38.4 art., Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren eta bere erakunde autonomiadunen erregistroen sorrera, antolaketa eta funtzionamenduari buruzko apirilaren 29ko 72/2008 Dekretuko 11. artikuluari lotuta).

Horrez gain, kontuan hartu behar da interesdunak kexa aurkeztu zuela, XXko Probintzia Auzitegiak hori zigortzen zuen epaia atzera bota ondoren; gure ikuspuntutik, horrek kexa gauzatzeko une horretara arte itxarotea justifikatzen du.

Segurtasun Sailak adierazi digun bezala, kexagileak ez zuen jakinarazpenak egiteko helbidea adierazi kexan. Hala eta guztiz ere, uste dugu datu hori kexak aipatzen zituen polizia eginbideetan jada agertu behar zela. Hori dela eta, horrela bada, gure ustez, kexa idazkian ez aipatzeak ezin izango luke justifikatu



kexa izapideak egiteko ez onartzea eta ez luke eragotziko horri buruz hartutako erabakia jakinaraztea.

Zehaztu behar da helbidea ez aipatzeak ez dakarrela ez onartzeko arrazoirik legez. Egia esan, hartutako ebazpena jakinarazteko ezintasuna ekarriko luke, helbidea Segurtasun Sailari adierazi ez bazaio, baina, aurretik esan dugun bezala, badirudi hori ez dela gertatu kasu honetan.

Dena den, uste dugu sail horrek interesdunari idazkiaren erantzuna bidaltzeko helbidearen inguruan izandako edozein zailtasun edo zalantza erakunde honi jakinarazi behar ziola hasieratik, guk kexagileari helarazteko eta horrek jakinarazpena oztopatzen zuten eragozpenak kendu ahal izateko.

Berriro ere adierazi behar da interesdunak Arartekora jo zuela, idazki horri erantzuteko eskatzeko.

Azaldutakoa dela eta, uste dugu Segurtasun Sailak emandako arrazoiek ezin dutela justifikatu kexagileak aurkeztu zuen kexa idazkiari oraindik erantzun ez izana.

Gure ikuspuntutik, arrazoi horiek ezin izango lukete justifikatu sail horrek kexa azaroaren 14ko 227/2000 Dekretuko 7.4 artikuluan (aurretik idatzi da) aipatutako maila orokorrean kontuan hartu ez izana, ezta erakunde honen gomendioekin bat datorren tratamendua eman ez izana ere. Hurrengo ataletan azken alde hori landuko dugu.

Hori dela eta, uste dugu Segurtasun Sailak interesdunaren kexa idazkia izapideak egiteko onartu, idazki horri gehiago berandutu gabe erantzun, eta kexagileari kexak aipatzen duen poliziaren jarduketaren erregistroetan adierazitako helbidean edo, hala denean, horrek adierazten duen helbidean hartutako erabakia jakinarazi behar diola (azaroaren 26ko 30/1992 Legeko 42. art., Ertzaintzaren jarduera-eremuan, batetik, Ekinbide-Polizia Zerbitzua Hobetzeko Ekimenetarako Bulegoa sortu, eta, bestetik, bulego horren antolamendua eta funtzionamendua arautzen dituen azaroaren 14ko 227/2000 Dekretuko 7. eta 8. artikuluei lotuta).

3. Ararteko erakundeak EAEko administrazio publikoen mendeko polizia kidegoei bereziki azpimarratu dizkien gomendioetako bat da poliziaren arduradunek ofizioz ikerketarako barneko prozedura bat abiarazteko premia, betiere, agenteren batek behin-behinean jarduera desegokiren bat bideratu duela jakinez gero, gertatutakoa aztertzeko, jarduera hori behar bezalako bideetatik





jazo ote zen egiaztatzeko eta, hala badagokio, neurri egokiak, diziplina neurriak edo beste izaera batekoak hartzeko.

Horri dagokionez, adierazi dugu poliziaren arduradunek herritarrek egindako kexak edo salaketak ikertu eta argitu beharreko lehenengo seinaleztat hartu behar dituztela, edozein bidetatik dutela horien berri, agerian gezurrezkoak edo sinesgaitzak izan ezean.

Halaber, nabarmendu dugu ikerketa bat irekitzeak ez dakarrela kexari sinesgarritasun osoa ematea edo agenteen profesionaltasuna zalantzan jartzea, balizko jarduketa desegokiak saihesteko eta, hala denean, horiek antzemateko eta zuzentzeko funtsezko tresna baino ez dela.

Poliziaren jarduera eta praktiketako berme sistema delakoari buruzko urriaren 28ko 7/2011 Gomendio Orokorrean horren inguruko gure egungo ikuspuntua jasotzen da (II.1.1 idatz-zatia), agerian bertan azaltzen denez, erakunde honek zentzu berean egindako aurreko beste gomendio eta erabakietatik sortutakoa.

Gomendioan adierazi dugu ikerketa berehalakoa eta inpartziala izan behar dela eta edukia gertaerak argitzeko egokia eta nahikoa izan behar dela. Nabarmendu dugu atestatuak salatutako gertaerak ezeztatzeak berez ez duela balio bestelako ikerketa jarduerak egitea ukatzeko edo poliziaren jarduketaren egokitasunari buruzko epaiketa bat oinarritzeko, eta ikerketa ezin dela mugatu ukitutako agenteek atestatuan adierazitako bertsioa biltzera. Halaber, nabarmendu dugu azken bi jarraibide horiek oso garrantzitsuak direla, zalantzan jartzen dena atestatuan adierazitako poliziaren bertsioaren beraren egiazkotasuna denean, kasu honetan gertatzen den bezala (II.1.1 idatz-zatia).

Gomendioan poliziaren ikerketa prozedura penal batekin batera gertatzen deneko kasua aztertu dugu, eta kasu horretan erakunde honek esku hartzeko duen eremua mugatu dugu.

Kontu horietako lehenengoari dagokionez zera aipatu dugu:

“Ohikoa da, polizia jardueri buruzko kexak eragiten dituzten egitate batzuk, aldi berean, jurisdikzio penalaren azterketa pean egotea, esku-hartzea gertatu bitartean atxiloketa bat edo atxiloketarik gabeko egozte penal bat gertatu delako edo nahastutako pertsonen salaketa penala jarri dutelako polizien kontra, edo inguruabar biengatik.

Halako kasu askotan ohikoa da, halaber, gertakariak argitzeko egin duten ikerketari buruz galdetzen dugunean, administrazioek prozedura judizial bat izapidetzen ari direla eta egoera horrek ikerketa edo are Arartekoak jardun ahal izatea baldintzatzen duela esatea.





Zalantzarik gabe, kexa bat eragin duten gertakariengatik prozedura penal bat bideratzeak zenbait muga ezartzen dizkiela polizia administrazioei gai horretan, hala nola prozesuan epaitzen ari diren jokabideak zigortzeko galarazpena, zehapen ebazpena eman ahal izateko auzitegien epaiari itxaron beharra eta jurisdikzio ordena horretako epai irmo batek halakotzat jotzen dituen gertakariak frogatutzat jotzea. Hori dena, ordena penala administrazio ordenari nagusitzeko printzipioa aplikatzearen ondorioz.

Hala ere, uste dugu inguruabar horrek ezin diela galarazi administrazio horiei salatutako polizia jarduera ikertzea ezta behar diren parametroen arabera izan dela egiaztatzea ere.

Euskal Herriko Poliziari buruzko uztailaren 17ko 4/1992 Legeak berak, gure iritziz, planteamendu horren alde egiten du, prozedura penala polizien aurkako den kasuei buruz hitz egiten duenean honela baitio: *“Euskal Herriko Poliziako kideen aurkako prozedura penala hasteak ez du galaraziko egitate horiengatik lehenagoko argibideak edo legokiokoen diziplina espedientea agintzea eta, beharrezkoa balitz, espedientea egin zaienak behin-behinean kargugabetu eta egokiak diren gainerako badaezpadako neurriak hartuko dira. Halarik ere, prozedura horiek ez dira behin betiko ebartziko arlo penaleko epaia irmoa izan arte, eta hark dakarren egitate frogatuen adierazpenak administrazioa lotuko du”* (9.15 art.).

Halako kasuetan funtsezkoa da prozedura penalean zer epaitzen den zehazki ezagutzea. Gure ikuspegitik, ez da berdin polizia funtzionarioen portaera ala poliziaren esku-hartzea dela-eta egindako argiketan jasotako gertakariak izatea. Bigarren kasuan, auzitegiak ez du kexa eragin duen polizia jarduera aztertzen, delitua edo hutsegitea leporatzen zaion pertsonaren portaera baizik eta, beraz, ikertu beharreko gaian ez legoke auzitegien esku-hartze zuzenik.

Argiketan jasotako egitateak epaitzen direnean, gainera, egotzitako pertsonaren absoluzioa poliziaren esku-hartzearen desegokitasun edo gehiegikeria zantzia izan liteke, baina haren kondenak ez luke inolaz ere esan nahi poliziaren portaera egokia izan zenik. Elkar orekatzen ez duten legez kontrako jarduera bi batera gertatzea baino ez litzateke.

Polizien aurkako salaketa judiziala egondako kexa askotan, auzitegien epaiaren ondoren ez zaio ikerketari berrekiten salaketa artxibatzen bada edo epaia absoluziokoa bada.

Berriz esan behar dugu gertakari askok garrantzi penalik ez izateak ez dakarrela berez polizia jardueraren zuzentasuna, bete behar zituen arauen arabera izanaren ikuspegitik, ezta bestelako erantzukizunik ez egotea ere, hala nola diziplinakoa, epaitzeko eremu desberdinak direlako.

Hori guztia dela-eta, uste dugu justiziak esku hartzen duen kasuetan polizia agintariak hastapeneko ikerketa bat egin behar dutela, adierazi dugunaren arabera, eta epaiaren ondoren ere poliziaren portaeraren azterketa zorrotza egin behar dutela, arlo penalean egindako epaiketa adierazitako ikuspegitik egindako poliziaren jokabidearen balorazioarekin osatuz” [III.1.1.b atala].

Kasu horietan Arartekoaren esku-hartzearen esparruari dagokionez zera azaldu dugu:

“Arestian adierazi dugunez, Arartekoak eskatzen dienean administrazioek ez ikertzeko edo eskatutako informazioa ez emateko erabili ohi dituzten arrazoietakoa bat, gure esku-hartzea erabat arbuizatzea da, argudiatuz gertakariari lotutako prozedura penal bat ari dela izapidetzen.



Kexa eragin duen polizia jarduera berari lotutako gertakariengatik prozedura judicial penala izapidetzeak, jakina, muga handiak dakartzko erakunde honi, batez ere otsailaren 27ko 3/1985 Legeko 13.1 artikulutik eratorriak, honela baitio: "Arartekoa ez da sendetsitako epaiaren gai izan edo epailaritza-erabakiaren zain egon daitezen arrenkurak banaka aztertzen hasiko".

Hala ere, uste dugu artikulua horrek ez duela guztiz baztertzen gure esku-hartzea halako kasuetan. Zalantzarik gabe, jurisprudenzia penalak ezagutzeko gordetako kontu zehatzak aztertzea eta haiei buruzko iritzia ematea galarazten dizkigu. Baina, gure irizpidearen arabera, galarazpen horrek ez digu ukatzen halako kexetan gure esku-hartzea kokatzen dugun prebentzio arloan jardutea, polizia arduradunei adierazi ditugun arauen arabera ikertzeko eskatuz eta arau horiek bete direla egiaztatuz.

Gure aburuz, aipatu manua ez da oztopoa erakunde honek polizia arduradunek burutu duten ikerketari buruzko informazioa jaso ahal izateko. E Arartekoak euskal herri-administrazioen mendeko polizia-kidegoei zuzendu dizkion beste gomendio orokorrak bete diren egiaztatu ahal izateko, herritarrei dagozkien eskubideen aurkako balizko jarduerak prebenitzeko lanaren esparruan. otoa izan administrazioek helburu horrekin burutu dituzten jarduerak Arartekoari jakinarazteko.

Gure aburuz, daukagun interpretazioa bat dator Konstituzioak (art. 43 eta 54.) ezarritako askatasunak eta oinarrizko eskubideak bermatzeko sistemarekin; izan ere, haren arabera jurisdikzio arrunta, Konstituzio Auzitegia eta herriaren defendatzailea sistema ixteko tresnak dira. Hortaz, Konstituzioak osagarri eratzen ditu erakunde horiek, eta haien esku-hartze esparrua ordenamendu juridikoak bakoitzari emandako eginkizunen arabera dago ezarrita; beraz, haien jarduera bat etor liteke kasu berean, zeinek bere xedea izanda bada ere" [III.1.1.c].

Aurrekarietan adierazi bezala, Segurtasun Sailak ez digu beren-beregi adierazi kexa ikertu duen. Kontua zeharka aipatu du. Izan ere, adierazi du ezin dela zigor arloan egindako epaitzea osatu, poliziaren jarduketa errespetatu beharreko jarraibideetarako egokitzapenaren ikuspuntutik zehatz-mehatz baloratuta, agenteen jokabidea prozedura judizialean baloratu dena izan baita. Era berean, agenteen jarduketa zuzena izan zela adierazi du, honako hauek oinarri hartuta: kexagilea absolbitu XXko Probintzia Auzitegiaren epaiak ez zuen adierazten jarduketa ez zenik zuzena eta "mintieron o falsearon el atestado",, eta agenteek adierazpenean ez zuten adierazi identifikazio zenbakiaren berri emateari uko egin ziotenik. Halaber, adierazi du ezin dela egiaztatu agenteetako batek kexagileari bere eta lankidearen gezurrezko identifikazio zenbakia eman izana.

Zehaztu behar dugu, esku artean ditugun datuen arabera, auzibidean ez zela epaitu interesdunaren egozpenaren ondorioz egindako atestatuko edukia hori bideratzea eragin zuten gertaerak zehaztasunez agertu zituen. Datu horien arabera, ez ziren epaitu agenteek kexagilearen kexaren aurrean emandako erantzuna, identifikazio profesionaleko zenbakia emateko ustezko ukoa eta agenteetako batek bere burua eta lankidea identifikatzeko ustez gezurrezkoa



zen zenbakia eman izana. Laburbilduta, ez zen epaitu agenteek interesdunari egozpenaren berri eman zioten eta egozpen eginbidea eman zioten.

Hori dela eta, uste dugu ez dela egon esku-hartze judizialik, ezta epai judizialik ere, kexaren alde zehatz horiei buruz.

Esku artean dugun informazioaren arabera, auzibidean epaitu zena agenteek kexagilearen aurka egindako egozpena izan zen. Hori dela eta, Segurtasun Sailak oinarri hartzen duen epaiak ezin izango luke justifikatu adierazitako aldeak ikertu ez izana, gure ustez.

Halaber, aipatutako epaiak poliziaren jarduketa desegokitzat ez jotzeak eta atestatua errealitatearen arabera egin ez zenik ez esateak (Segurtasun Saila horietan oinarritu da, poliziaren jarduketa zuzena izan zela baloratzeko) ezin izango lukete oinarritu balorazio hori, ezta kexa ikertu ez izana ere, gure ustez.

Berriro ere nabarmendu behar dugu egoitza judizialean epaitu zena agenteek kexagilearen aurka egindako egozpena izan zela eta egoitza horretan ez zirela aztertu kexaren xede izan diren jarduketaren beste aldeak.

Era berean, berriro adierazi behar dugu azkenean kexagilea absolbitu zuela. Gure iritziz, horrek poliziaren jarduketa ikuspuntu horretatik ikertu eta aztertzea justifikatzen du, aurretik adierazi ditugun arrazoiak direla-eta.

Gainera, absolbitze epaian honako hau adierazi da: *"En este caso, podríamos admitir, teniendo en cuenta la declaración del agente que depuso en el plenario, que existió un mandato expreso, concreto y terminante, en el sentido de que se apartara o se marchara, pero más dudas existen sobre si los agentes de la autoridad estaban habilitados legalmente para decir a un ciudadano que se manifestaba libremente y de manera autorizada para que se marchara del lugar (a no se sabe dónde)".*

Gure ustez, epaiak agenteak kexagileari lekutik alde egiteko emandako aginduaren (kexaren arabera, horixe izan zen kexagilea kexatzea eta agindua eman zion agenteari identifikazio profesionaleko zenbakia eskatzea eragin zuena, baita agentearen ondoko erantzuna eta gertaerak bilakatzeko modua ere) legezotasunari buruz adierazten dituen zalantzek kexa ikertzea eta poliziaren jarduketa ikuspuntu horretatik aztertzea babesten dute.

Segurtasun Sailak emandako azalpenak ikusita, berriro ere adierazi behar dugu ikerketa ezin dela mugatu ukitutako agenteek atestatuan adierazitako bertsioa biltzera, are gutxiago zalantzan jartzen dena bertsio hori dela kontuan hartuta.





Uste dugu agenteetako batek kexagileari bere eta bere lankidearen gezurrezko identifikazio profesionaleko zenbakiak eman zizkion egiaztatzeke ezintasunak, Segurtasun Sailak adierazi duenak, ere ezin duela justifikatu kexa ikertu ez izana. Gure iritziz, ezin da mota horretako ondorioz atera, gutxieneko erkaketa jarduerarik egin gabe, interesdunari zein zenbaki eman zitzaion jakiteko eta zenbaki horiek agenteenak diren egiaztatzeke. Guk dakigula, hori ez da egin kasu honetan.

Gure iritziz, atestatu bati lotutako agenteen zenbaki profesionalak atestatuan bertan egoteak ere ez luke justifikatuko jokabide hori, aurretik egiaztatzen ez bada kexari lotutako agentearen zenbakia dena delako atestatu zehatzean agertzen dela. Kasu honetan, badirudi ez dela egiaztapen hori egin, Segurtasun Sailak horri buruz helarazi genion oharrari erantzun ez diola kontuan hartuta.

Laburbilduta, Segurtasun Sailak emandako informazioa aztertuta, uste dugu ez dela egin urriaren 28ko 7/2011 Gomendio Orokorrean (II.1.1 idatz-zatia) adierazitako jarraibideekin bat datorren kexaren ikerketa.

Uste dugu sail horrek emandako arrazoiek ez dutela justifikatzen jokabide hori, ezta erakunde honi kexa ikertu den ala ez jakinarazi ez izana ere.

4. Urriaren 28ko 7/2011 Gomendio Orokorrean (II.2.3 idatz-zatia) atestatuetakoa edukia kontrolatu beharra nabarmendu dugu, honako hau adierazita:

“Azken urteotan zenbait pertsonak jo dute erakunde honetara euren aurka egindako argiketen edukiarekin ados ez daudela adierazteko, haien ustez poliziek ez zutelako zintzotasunez islatu gertatutakoa, euren jarduera eragin zuten gertakarietara dagokienez. Halaber, kexa batzuek arazo behar agertu dute poliziek arau-hauste administratiboengatik egindako salaketei buruz²⁵. Erreklamaziogileek horrela lotzen zituzten jokabidea eta poliziek ondoren balizko polizia jarduera desegokia zuzitzeko egindako ahalegina edo erakunde honek “kontrasalaketa” deritzona; funtsean, honakoan datza: poliziak, euren esku-hartzeak hura zalantzan jarri duen pertsonak kexa edo salaketa jartzea ekar dezakeela sumatzen dutenean, aurreratu eta haren aurkako salaketa egiten dute.

Oso kezagarria deritzogu halako portaera arbuigarriak gertatzeari. Badakigu ez dela erraza haiei aurka egitea, baina gertatzen direnean polizia eginkizunen gehiegikeria da eta eginkizun horiek betetzeko legezkotasun itxuraren pean mozorrotu ohi dira. Jakin badakigu, arazoak sortzen direla arlo horretan gehiegikeria bat egin dela frogatzeko, hain zuzen ere, jardueraren legezkotasun itxura horregatik. Horregatik jotzen dugu funtsezkotzat polizia arduradunak jakitun izatea ordenamendu juridikoak poliziei argiketa edo administrazio salaketa egiteko ematen dien ahalmena neurritz gain erabil daitekeela eta praktika horiek saihestu eta, gertatuz gero, antzeman ahal izateko kontrol tresnak ezartzea.



Horri buruz jaso dugun informazioa dela-eta, ulertzen dugu arlo horretan ez dela kontrol tresnarik ezarri eta berriz esan behar dugu egin behar dela.”

Segurtasun Sailak ez digu jakinarazi poliziaren jarduketa ikuspuntu horretatik aztertu den. Hori ez da justifikatu, eta ez dago justifikatuta, gure ikuspuntutik. Hala ere, emandako informaziotik ondorioztatu dugu ez duela azterketa hori egin.

Aurrekarietan adierazi bezala, kexaren arrazoi horri lotuta, sailak bakarrik adierazi digu XXko Probintzia Auzitegiaren epaiak agenteek “*gezurra esan edo atestatua faltsutu zutenik*” adierazten ez zuela, eta, kexagileak salatutako egoera gertatu balitz, atestatuko instruktoreak eta idazkariak atestatuan bertan hori adierazi eta horren ondorioz jardun beharko zutela.

Gure ikuspuntutik, arrazoi horiek ez dute justifikatzen aipatutako azterketa egin ez izana. Izan ere, alde batetik XXko Probintzia Auzitegiak ez zuen epaitu kexaren alde zehatz hori; eta, beste aldetik, gomendioan adierazi bezala, eremu horretako balizko gehiegikeriak normalean ez dira behar bezain argiak, lehen begiratuan ikusi ahal izateko, poliziaren eginkizunen erabileraren legezkotasunaren itxura hartu ohi dutela, horrek neurri handian eragozten duela horiek antzeman eta probatzea.

Izan ere, horixe zen gomendioan aipatzen genuen eta poliziaren arduradunei eremu horretako balizko gehiegikeriez konturatzeko eskatzera eraman gintuen arazoa, jarduketa horiek saihesteko eta antzemateko aurreko eta ezinbesteko urratsa baita.

Uste dugu Segurtasun Sailak kexaren alde horri buruz emandako informazioa kontzientziatze hori gertatu ez delako seinale dela.

5. Era berean, urriaren 28ko 7/2011 Gomendio Orokorrean (IV. idatz-zatia), honako hau adierazi dugu:

“Gizarte demokratiko batean, hiri-esparrua zirkulazio eremu bat izateaz gain, parte hartzeko eremu bat ere bada⁴⁹. Konstituzioaren 21. artikuluan elkartzeko eskubidea aitortu da “es una manifestación colectiva de la libertad de expresión ejercitada a través de una asociación transitoria (y) opera a modo de técnica instrumental puesta al servicio del intercambio o exposición de ideas, la defensa de intereses o la publicidad de problemas o reivindicaciones, constituyendo, por lo tanto, un cauce del principio democrático participativo, cuyos elementos configuradores son, según la opinión dominante, el subjetivo —una agrupación de personas—, el temporal —su duración transitoria—, el finalístico —licitud de la finalidad— y el real u objetivo —lugar de celebración—”.



Beraz, elkartzeko eskubidea eta adierazpen-askatasuna hertsiki lotuta daude. Herritarren parte-hartzearen inguruan poliziak egiten duen kudeaketak ez du oinarrizko eskubide horien gauzatzea oztopatu behar guztiz derrigorrezkoa dena gaindituz."

Uste dugu keaxak mota horretako kontua ere agertzen duela; gure ustez, hori keaxagilea absolbitu zuen epaian bertan dago, agenteetako batek interesdunari lekutik alde egiteko emandako aginduaren legezkotasuna zalantzan jartzen zuenean, hain zuzen.

Segurtasun Sailak ez digu jakinarazi poliziaren jarduketa ikuspuntu horretatik aztertu den, gure ustez hori egin behar zela adierazi arren, eta ez du ezer adierazi horri buruz.

Justifikatu ez den eta gure ikuspuntutik justifikatuta ez dagoen informazioaren gabezia horrek aipatutako azterketa egin ez dela ulertzea eramaten gaitu.

6. *Bilboko San Frantzisko zonan atzeritarrekiko burututako jarduera polizialei buruz arartekoak izandako esku-hartzeari buruzko txostenean, poliziaren kode deontologikotik (Euskal Herriko Poliziari buruzko uztailaren 17ko 4/1992 Legeko 31. art.) abiatuta honako hau adierazi dugu: "Agenteek, beti, tratu zuzena eta arretatsua eskaini behar dute". Halaber, identifikazio profesionala eman beharra nabarmendu dugu, horiekin dauden pertsonen hori eskatzen dietenean. Era berean, honako hau adierazi dugu: "**eragindako pertsonak egindako informazioeskaera, edota are, jarduera hori zalantzan jartzea edo kritikatzeara, ez da besterikgabe hartu behar agintearen agenteenganako errespetu gabezia edodesobedientzia gisa**" edo antzeko bestelako legez kontrako zehapenak. Eta eremu horretako gehiegikeriak saihesteko neurri batzuk proposatu ditugu, adibidez, agenteei lotutako legez kontrako zehapenengatiko egozpenen kontrol kuantitatiboa (erresistentzia, desobedientzia edo antzeko arau-haustea), kasuak agente eta patruila zehatz batzuetan pilatzen diren aztertzea, eta egozpen horien ondorioz egondako epai judizialen jarraipena egitea [berariazko 8. gomendia, b) eta e) idatz-zatiak].*

Herrizaingo Sailak garai hartan emandako informazioaren arabera, azken gomendio horren ondorioz hartu zituen neurrietako bat honako hau izan zen: agenteek "egozpen eginbidea" ematea ustezko zigor arloko arau-haustea egotzi dioten pertsonari.

Segurtasun Sailak ez digu jakinarazi poliziaren jarduketa ikuspuntu horretatik aztertu den, gure ustez hori egin behar zela adierazi arren, eta ez du ezer adierazi horri buruz.



Sailak ez digu jakinarazi kexagilea egotzi zuen agenteak egozpenaren berri eman zion eta bidezko egozpen eginbidea eman zion. Laburbilduta, ez digu jakinarazi ezer interesdunak kexan horri buruz agertutako gainerako kontuei buruz.

Justifikatu ez den eta gure ikuspuntutik justifikatuta ez dagoen informazioaren gabezia horrek aipatutako azterketa egin ez dela ulertzera eramaten gaitu, ez baititu argitu kexagileak agenteen jarduketaren zuzentasunari buruz agertutako zalantzak, nahiz eta guk hori egin behar zuela uste izan.

Kontu horri dagokionez, adierazi behar dugu, Segurtasun Sailak eman digun informazioa ikusita, erakunde honek ez duela inolako arrazoirik aurkitu, kexagileari kexa idazkian galdetutako agentearen identifikazio profesionaleko zenbakia oraindik jakinarazi ez izana justifikatzeko.

7. EAEko administrazio publikoek Arartekoak bere eginkizunak gauzatzeko eskatzen dituen datu, dokumentu, txosten edo azalpen guztiak lehentasunez eta premiaz emateko lege betebeharra daukate. Eskatutako informazioa eskuratzea eragozten duen edozein jarduketa oztopotzat jotzen da legez (otsailaren 27ko 3/1985 Legeko 23. eta 24. artikulua).

Uste dugu kasu honetan Segurtasun Sailak ez duela behar bezala bete aipatutako lege betebehara hori. Aurrekarietan azaldu den bezala, ez die erantzun guk galdetutako kontu gehienei, ezta kexagileak kexan adierazitakoei ere. Gure ikuspuntutik, hori ez dago justifikatuta. Halaber, ez digu jakinarazi kexagilearen kexa idazkiari erantzun zion, lehenengo aldiz eskatu zitzaionetik urtebete baino gehiago igaro ondoren, nahiz eta eskaera behin eta berriz egin dugun eta aldi horretan informazio hori emateko kudeaketa asko egin ditugun.

Horrez gain, uste dugu bai aldi horretan interesdunak eskatutako erantzunari lotutako kexa idazkia izapideak egiteko onartu ez zenik ez jakinaraztea bai erabaki hori ez jakinarazteko arrazoiak idazkian helbidea ez agertzea zela justifikatzea ez datozela bat legezko lankidetzaren betebeharrarekin eta gure elkarrekiko harremanak eraentzen dituen erakunde leialtasuneko printzipioarekin.

Beste aldi batzuetan adierazi dugunez, galdetutako kontuei ez erantzuteak edo erantzun urriak oztopo handia dakarte gure eginkizunen funtzionamendu arrunterako, eta, beren eskubideak defendatzeko antolamendu juridikoak eskura jartzen dituen tresnetako bat erabiliz erakunde honetara jotzen dutenen eskubideak neurri handian kaltetzen dituzte.





Gainera, jokabide horrek kexak bideratzeko prozesua berandutzen du justifikaziorik gabe, eta hori oso kezagarria da, kasu honetan bezala, ukitutako pertsonak Arartekora jotzen dutenean, Administrazioak idazkiei erantzuteko asmoz, eta berandutzak kexa eragin duen poliziaren jarduketaren barneko ikerketa bera ukitzen duenean, zirkunstantzia horrek ikerketa arriskuan jar dezakeela.

Horregatik guztiagatik, "Arartekoa" Erakundea sortu eta arautzeko otsailaren 27ko 3/1985 Legeko 11.b) artikuluan agindutakoaren arabera, Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Sailari honako hau aurkeztu zaio:

Gomendioa

Kexagileak aurreko Herrizaingo Sailari bidalitako kexa idazkari erantzutea, gehiago berandutu gabe, eta idazki horretan galdetutako agentearen identifikazio profesionaleko zenbakiaren berri ematea.

Kexa ikertzea, *Poliziaren jarduera eta praktiketako berme sistemari* buruzko urriaren 28ko 7/2011 Gomendio Orokorrean (II.1.1 idatz-zatia) adierazitako jarraibideei jarraituta.

Kexak aipatzen duen poliziaren atestatua eta agenteetako batek kexagileari alde egiteko emandako agindua aztertzea, Arartekoaren urriaren 28ko 7/2011 Gomendio Orokorrean adierazitakoa kontuan hartuta, atestatuetakoa edukari eta bilera eskubideari dagokienez (II.2.3 eta IV. idatz-zatiak), eta aginduaren azterketan kontuan hartzea interesduna absolbitu zuen XXko Probintzia Auzitegiaren 2012ko martxoaren ddo epaian horri buruz adierazitakoa.

Agenteak jarduketan haiekin harremanetan jartzen diren pertsonari eman beharreko tratuari, pertsona horiek informazioa eskatzean edo haien jarduketa zalantzan jartzean izan behar duten jarrerari, identifikazio profesionaleko zenbakia eman beharri eta egozpenei buruz eman beharreko informazioari buruz [*Bilboko San Frantzisko zonan atzerritarrekiko burututako jarduera polizialei buruz arartekoak izandako esku-hartzeari* buruzko txosteneko berriazko 8. gomendioa, b) eta e) idatz-zatiak] bete behar dituzten jarraibideetara egokitu ziren aztertzea.

Agenteetako batek haren aurka egindako egozpenetik kexagilea absolbitu zuen epaia kontuan hartzea, agentei lotutako legez kontrako zehapenengatiko zigor egozpenen kontrol kuantitatiboaren ondorioetarako [*Bilboko San Frantzisko zonan atzerritarrekiko burututako jarduera polizialei buruz arartekoak izandako esku-hartzeari* buruzko txosteneko berriazko 8. gomendioa, b) eta e) idatz-zatiak].